

## Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

Karrantza (Bizkaia)

TESTUA: UNAI BREA



UNAI BREA

Aste honetan ez dugu ibilaldi zehatz bat proposatuko, baina ibilaldi labur eta atsegin asko eskaintzen duen ingurua aurkeztuko dizuegu. Euskal Herriko mendebaldeko ertzerara joko dugu, Karrantzara. Bizkaiko udalerrri zabalenaz ari gara; orrialde hauetan dugun lekua baino dezente zabalagoa, egia esatera. Horregatik, Enkarterriko haran eder honen iparraldea jorratuko dugu batik bat, eta gero geroakoak.

F. F. ORTEGA &amp; MC. VALLS

Lilura lur gainean

Zein azpian



Orain dela hilabete batzuk ere Karrantzari egin zion bisita Ihesi atal honek. Orduko hartan, Kantabriatik doan bidea gomendatu genizuen bertara iristeko, eta honako honetan berretsi egingo dugu gomendio hori. Gure esanari jaramon egingez gero, haitz handi biren arteko arroilan aurkituko duzue Euskal Herria ongi etorria opa dizuen errotulua. Ezkerreko haitzean, hain zuzen, gure lehengo geltokia dago: Pozalagua-leizea.


50 herrixka inguruk osatzen dute udalerrria, 138 kilometro koadroko haranean zipriztinduta. Errepidean aurrera, Las Cadenas aurkituko dugu lehenbizi, eta ia berehala Pozalaguarako bidea iragartzen duen seinalea. Ezkerretara egin behar da, esan dugunez. Eta gora. Bide erdian Ranero auzoa pasa eta handik aurrera bidea estutu egingo da baina berehalaxe helduko gara Pozalaguako aparkalekura.

Autoa utzita, alde batean jabetzea dugu, eta metro batzuk harago, begiratokia. Ia Karrantza osoa ikus daiteke bertatik, eta zer ikusten ari garen azalduko digu bide batez, horretarako jarritako panelak. Zinez merezi du minutu batzuk behatze lanetan ematea.

Behatokian gaudela, Ordunteko mendilerroak galaraziko dugu Karrantzatik harago ikustea. Hori da udalerrriaren hegoaldeko muga, eta bertan dira Bizkaiko mendirik garaienak batzuk. Iparraldean berriz, egitura karstiko ikusgarri batek egiten du Kantabriarekiko muga. Karst horretan urak egindako lanik ezagunena, hain zuzen, Pozalaguako kobazuloa da, Ranero haitzaren errailetan eraikitako naturaren miraria. Goazen, bada, haren atariraino.

### Munduko leizerik "esentrikoena"

Pozalagua 1957an aurkitu zuten, ezustean, alboko harrobian lanean zebiltzan langileek. Aurten 50 urte beteko dira beraz, eta hainbat ekitaldi antolatu dute hori gogoratzeko. Harrobia, bestalde, lo dago aspaldi-



## Zelan heldu Karrantzara?

Bilbo ingurutik abiatuta, A-8 autobidetik joan behar dugu Santanderreanrako bidean. Luze gabe izango gara Euskal Herriatik kanpo. Laredo inguruan, 173 irteeratik irtengo gara, Colindreserantz. Berehala N-629 errepidetik abiatuko gara, Ampuero eta Limpiaseranrako norantza hautatuz.

Hamabost kilometro egin eta gero, gutxi gorabahera, Gibaja herrixka utziko dugu ezkerretara. Handik 500 metro ingurura, Karrantzarako bidea (CA-150 errepidea) aurkituko dugu, ezkerretara halaber. Bost kilometro gehiago eta Euskal Herrian izango gara berrito, Karrantzan.

danik, leherketek arriskuan jartzen baitzuten leizearen egitura.

Zerk egiten du ospetsu Pozalagua? Zalantzarik gabe, munduko estalaktitarik bitxienetakoak bertan egoteak. Estalaktita esentrikoak, hain justu. Leizearen erdian dagoen aretoko sabai osoa betetzen dute, eta esan liteke grabitatearen legerari aurre egin nahi diotela, jaio ostean gorantz itzultzen baitira, era guztietako itxurak hartuz, elkarrekin korapilatuz eta batzuetan, ostera ere, sabaiarekin elkartzuz. Munduan halako estalaktita gehien daukan kobazuloa omen da Pozalagua.

Berriz kalera irtenda, eta jabetxe ondora hurreratuta, Armañongo parke naturalaren zati handi bat ikus dezakegu. Orain gutxi hala izendatua, Karrantzak iparralde osoa hartzen du, Raneroko haitzetatik El Sucesoko elizaraino, eta baita Turzioz herriko zati bat ere. Haranaren alde honetan abeltzaintzak ez du

izan beste leku batzuetan adinako indarra, eta horrek eragin du inguru-nea hobeto gorde izana. Aipatzekoa da, Armañon barruan, Sopeñako artadia, labar baten magalean. Labar horrek ipar haize hotza sartzea galarazi eta eguzkiaren beroa gordetzen du. Hala sortu den mikroklima bereziak ahalbidetu du mediterraneerako artadi ederra jagotea mendiak.

### Paules eta Biañez

Paules herritik abiatu gaitzke Sopeñako artadira. Txango labur eta erraza da, hasierako kilometroak betoizko bide batetik egiten dituen. Paulesera heltzeko, berriz, Pozalaguatik jaitsi, errepide nagusiarekin bat egin eta aurrerantz jarraituko dugu. Ambasaguas herria zeharkatu eta gutxira, El Callejo auzoan, ezkerretara igoko gara, Karpin abentura parkera doan bidetik. Karpinen, bide batez, hamai-ka piztia ikusi ahal izango ditugu, nolabaiteko askatasunean. Leku zora-

## Karrantza bi, baserri mota bi

30eko hamarkadatik hona desberdintasunak erabat lausotu badira ere, betidanik Karrantza bi egon dira Garbiñe Aja kultur zinegotziak esan digunez; areago, "oso Karrantza desberdin bi". Erdi Aroko historiak, esaterako, muga batzuk uzten ditu agerian. Leinu arteko borroka Karrantzan ere izan zen, baina hemen, oinaztar eta ganbotarrak beharrean, *Giles* eta *Negretes* ziren elkarren arerio amorratuak.

Gildarren eta Negretarren lurraldeak ondo bereizita zeuden. Hegotik iparmendebaldera ia haran osoa zeharkatzen duen Cuadro ibaiak egiten zuen muga. Mapa batean begiratuta ikusi daitekeenez, gutxi gorabehera talde bakoitzak haran erdia "zeukan".

Baina ibaiak ezarritako zatiketa Ahaide Nagusien arteko liskarretik harago doa. Mendebaldea, Gildarren aldea nahiago baduzue, Kantabriari begira bizi izan da, eta ekialdea, berriz, Bizkaiari. Hainbat arlotan igarri da hori. Garai bateko artzainetan mendebaldeko mendebaldarrenek, konparazio baterako, Kantabriako belardietara eramaten zituzten ardiak. Ekialdekoek, aldiz, Bizkaiko Txorierrira edo Ibaizabalen eskumako ibarrera.

Beste desberdintasun bat ikusgai dago oraindik, Garbiñe Jakak erakutsi digunez; Karrantzako arkitekturari dagokio. Gildarren eremuan kantabriar ereduko baserria da nagusi, baina negreteanean Enkarterrietakoa gailendu da. Ez kantabriar, ez bizkaitar; bien hibridoak baizik. Turtzioztar baserria ere esaten zaio, edo hala dio behintzat



Turtziozko Udalak argitaratutako turismo-gida batek. Ihesi honetan ezagutu ditugun karrantzar lurraldeetan, estilo horretako baserriak daude han-hemen.

Enkarterriar motako baserria bailarako mendebalde osoan dago zabaldua XVII. mendetik. Erakin errektangeluarra eta sakona da, aurrea alde laburretako batean duela. Haren ezaugarri ezagunenetakoa teilatuak aurreko fatxadan egiten duen okerdura da, miru-buztana izenekoa.

garría umeentzat. Pare bat kilometro gorago dago Paules, Enkarterrietako arkitektura ale eder batzuk erakutsiko dizkigun herrixka lasaia.

Paulesera doan bide berean, baina Karpinera iritsi baino lehenago, Białeńez dago. Bertan, elizak dira azpima-

rratzekoak. Eliza berria herri barruan dago, eta XIX. mende amaieran hasi ziren eraikitzen, Romualdo Chavarri indianoak emandako dirutzari esker. Chavarri, Puerto Ricon aberastutako białeńeztarra, berez zen eskuzabala eta herri-lan ugari finantzatu zituen,

Haitz handi biren arteko arroilan aurkituko duzue Euskal Herrira ongi etorria opa dizuen errotulua. Karrantzan sekula izan ez dena bidaia ataritik geldituko da harrituta.



baina eliza berriari dagokionez asmo berekoiagoek bultzatu zuten poltsikoa arintzera: ordurako debekatuta zegoen inor tenplu barruan ehorztea. Chavarrik bere herrikoan hilobiratu zezatela nahi zuen ordea. Horretan tematuta, eliza berria eraiki zuen zaharraren jabegoa eskuratzeko asmoz. Baita lortu ere. Gaur egun, Chavarriren gorpuak, –haren ondorengo batzuenak ere bai–, Białeńezeko eliza zaharra du atsedeenleku. Herrira heldu baino apur bat lehenago, ezkerrean, ikusiko duzue.

1989an, eliza zaharra berriztatzen ari zirela, Errenazimenduko margoz betetako horma bat geratu zen agerian; 92 metro koadro guztira. Orain dela lau urtetik hona, erlijio-ondareaz arduratzen den elkarte batek eliza zabaltzen du larunbat, igande eta jaiegunetan, bisita gidatuak egite aldera. Atarian, Romualdo Chavarriren estatua batek egiten digu harrera, ikur masonikoz gainezka.

Berriro errepide nagusian, bospasei kilometro gehiago egin beharko ditugu El Sucesoraino. Hark adieraz-

## Jan

✓ La Concha-Casa Garras  
(Kontxa)  
94 680 62 80

✓ Txutxi Etxea  
(Biañez)  
94 680 60 64

✓ Charo sagardotegia  
(Las Torcachas)  
94 680 61 77

## Lo

✓ El Molinar bainuetxea  
Molinar auzoa, 17 | 94 680 60 02

✓ Urritza Nekazalturismoa  
(Trespalacio) | 678 39 43 86

✓ Arkazipe baserria  
(Soscaño) | 94 680 63 42

✓ Artetxea (Biañez) | 94 610 68 53



1989an deskubritu zituzten polikromia eder hauek Biañezko elizan; 92 metro koadro artelan guztira.

ten du Karrantzaren ekialdeko muga. El Sucesoko amabirjinaren omenezko santutegia dago bertan, eta hari itsatsita, siamdar bikiak bailiran, zezen plaza zaharra. Santutegia XVII. mendean eraiki zuten, eta mende bat geroagokoa da bere barruko erretaula barroko ikusgarria.

## Mundu oso bat lurpean

Armañongo parkeak gauza asko eskaintzen dio ikusmenari lurrazalean, eta baita lur azpian ere. Lehenbizikoen artean aipatzekoak dira zen-

bait trikuharri. Lurpean, berriz, ondare oparoa dugu zain, Pozalagua ez ezik. Torca del Carlista, esaterako, Europako osin-areto handiena da, eta munduko hirugarrena. Eta Sopeña inguruetan, leize baten barruan, EAEko osinik sakonena dago. Adibide batzuk baino ez dira.

Karrantzara sartu garen lekuan, Bizkaian gaudela dioen errotulutik oso gertu, Ventalaperra haitzuloa dago, aurre-historiako grabatu eta guzti. Santimamiñekoak baino 15.000 urte zaharragoak dira Ventalaperrako irudiak.

Horrelako altxorrek tentatu baizaituzte, lasai edonork dauka-eta espeleologia pixka bat egiteko aukera, iazko udan Udaletxeak irekitako Angela meategian, Matienzon. Meategiko bideek 30 kilometro baino gehiago dituzte, bisitarietarako ibilbideak bi eta erdi baino ez. Gidari baten laguntzaz, eta ordu eta erdiz, hainbat leku lilurgarri ikusteko aukera izango duzue. Argia eta kaskoa bertako zaindarien emango dizkizute; uretarako oinetako egokiak eta jaka ona norberak eraman behar ditu. Aurten, maiatzean dira meategia berriz irekitzekoak. ■

